



2022

Arte plastikoen eta ikusikoen laguntza programa
Programa de ayudas para artes plásticas y visuales



PROGRAMAREN OINARRIAK



A. HELBURUA

B. XEDEA

NORI ZUZENDUA DAUDEN

NOIZ

MODALITATEAK

Bi modalitate ezartzen dira:

Ekoizpenerako diru-laguntzak: proiektuen sorkuntza/ekoizpena arlo plastikoan eta ikusizkoan: artelanen ekoizpena eta ikerketak.

Argitalpenerako diru-laguntzak: argitalpenak euskarri ezberdinetan egitea, arte garaikideko artistak eta formatu editorial bat behar duten arte-proiektuak hedatzeko eta sustatzeko.

Proiektu bakar bat onartuko da eskatzaile bakoitzeko eta modalitate bakoitzean. Eskatzaile berberak ezin izanen du modalitate bakoitzeko laquntza jaso, urte berean.

Modalitate bakoitzera bideratu diren baliabideak modalitate bakoitzean baloratzen diren eskaeren artean banatuko dira, ezarritako prozedurarekin eta irizpideekin. Baina, modalitate batera bideratutako laguntzak agortzen ez badira, eskaerarik aurkeztu ez delako, edo betebeharrak bete ez direlako, edo balorazio batzordearen iritziz, eskaerek ez dutelako behar bezalako kalitaterik edo bideragarritasunik, laguntzak berriz eskaintzen ahalko dira eta beste modalitateari esleitutako zenbatekoari erantsi.

C. BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUK JASOTZEA ETA HAIEKIKO BATERAGARRITASUNA

Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren diru-laguntzarekin batera, helburu bera duten beste diru-laguntza, beka edo laguntza batzuk jaso daitezke, entitate publikoek, pribatuek edo partikularrek emandakoak. Nolanahi ere, haien guztien zenbatekoa ezin da inola ere izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

D. ARGITARATZEA

Deialdiaren oinarriak Uharte Zentroko webgunean plazaratuko dira www.centrohuarte.es/eu

E. OINARRIAK ONARTZEA

Eskaeren aurkezpenak berarekin dakar deialdi honen oinarrietan ezarritako baldintzak espresuki eta formalki onartzea.

2. Ekoizpenerako diru-laguntzak

A. ZENBATEKOA

60.000 euro ezarri dira, ekoizpen artistikoko proiektuentzat, gehienez ere 12.000 euroko bost laguntza edo gehiago.

Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako eskatzen dena esleituko da.

Onuradunen batek uko egiten badio laguntzari, puntuazioaren hurrenkeran hurrengo den eskatzaileari emanen zaio, betiere, ebaluazio taldeak eskatutako gutxienekoa gainditzen badu.

Laguntza jasotzen duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (ebaluazio batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura doitzea bere proiektua. Hori dela-eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua argitalpeneko modalitatara bideratutako diruari eransten ahalko zaio.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eman beharreko laguntzen baturak gainditzen badu deialdian ezarritako zenbatekoa, artisten artean hainbanatu ahal izango da, eta zenbatekoa puntuazioaren proportzioan murriztuko da.

B. FINANTZATZEN AHAL DIREN GASTUAK

Finantzatzen ahal diren gastuak dira diruz lagundutako proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoak diren gastuak eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak. Aipatu gastuen kostua ez da inola ere izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Proiektua ekoizteko behar diren materialak eta tresnak erostea.
- Onuradunaren joan-etorriak, ostatua eta garraioa, proiektuarekin zuzeneko lotura dutenak. Behar-beharrezko kostuak izanen dira proiektua gauzatzeko, eta hortaz, proiektua gauzatzeko epealdian egin beharko dira, txostenean adierazi eta aurrekontuan zehaztuko dira. Ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietatik edo joan-etorri arruntetatik datozen gastuak, ezta dieta-gastuak ere.
- Proiektuko ekintzak egiteko behar diren zerbitzuak, kanpoaldeko bitartekoak, ekipoa, bitarteko materialak eta beste kontratatzea.
- Egitura-kostuak, hala nola estudio edo lokal bat alokatzea, betiere egokia bada eta proiektua garatzeko justifikatua badago. Ez dira aintzat hartuko artistaren ohiko estudioa mantentzeko gastuak.
- Artisten ordainsariak, sorkuntzarako egindako lanaren ordainez, ez du gainditu beharko jasotako laguntzaren % 25a.
- Ekipamendu ondasun inbentariagarriei dagokienez (suntsikorra ez den ekipamendua) diruz lagundu daitekeen gastua, oro har onartutako kontabilitate-arauei jarraiki kalkulatzeko den amortizazioa izango da, eta hau ezin izango da ondasunaren balioaren % 50 baino gehiagokoa izan.

Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emanen:

- Onartutako aurrekontua artistak aurkeztutako aurrekontuaren emaitza izango da, diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kenduta.

Bide beretik, artxiboa jaso izanaren ziurtagiria igorriko da.

EBALUAZIO BATZORDEA

- Celia Martín Larumbe, Museoen saileko arduraduna Kultura Zuzendaritza nagusiaren ordezkartzan
- Juan Zapater, Bilbaoarteko zuzendaria
- Oier Etxeberria, Tabakalerako Arte Garaikideko arlo-burua
- Greta Alfaro, artista plastikoa eta Uhartet Zentroko Patronatuko kidea
- Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez.

- 1. Uharte Zentroak** eskaeraren lehenengo ikuspen teknikoa egingen du eskaerek deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
- 2. Ebaluazio Batzordeko** kideek onartutako proiektuak jaso eta baloratuko dituzte bakoitzak bere aldetik eta 10 hautagaiez osaturiko zerrenda bat proposatuko du bakoitzak.
- 3. Ebaluazio Batzordea** aurrez hautatutako hautagaien puntuazioak bateratzeko bilduko da. Batzordeak proiektua 5 minutuz aurrez aurre aurkezteko eskatu ahal izango die hautagaiei, eta, horren ondoren, batzordeak azken puntuazio-proposamena egingo du.

Onartutako aurrekontuak ezarririk eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatuta, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio altuena izan duten proiektuen artean. Erabakia loteslea izango da.

Irizpide hauen arabera baloratuko dira proiektuak:

- $$\parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown \parallel \diagup = \diagup \parallel \diagdown \parallel \diagup = \diagup \parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown \parallel \diagup \parallel \diagdown$$

E. KOMUNIKAZIOA

F. PROIEKTUEN JARRAIPENA EGITEA

EGONALDIA UHARTE ZENTROAN

PROIEKTUEN AURKEZPENA

BANAKAKO ERAKUSKETA

G. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- $$\parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown \parallel \diagup = \diagdown \parallel \diagup \parallel \diagdown = \diagup \parallel \diagdown = \diagdown \parallel \diagup = \diagup \parallel \diagdown = \diagdown \parallel \diagup \parallel \diagdown \parallel \diagup$$

bai eta emaitzak, garapena eta ebaluazioa ere. Txostenean jaso beharko da proiektuaren alderdi guztiak bete egin direla, deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat.

- Jasotako diruaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeelako.

- Laguntza jasotzen duten proiektuak onuradunaren eta Arte Garaikideko Uharte Zentroaren artean elkarlanean egindako proiektutzat joko dira. Bi aldeek proiektuak hedatzeko ekintzak egin ditzakete, aurrez hitzartutakoak. Nolanahi ere, aipatu elkarlana adieraziko da beti, bai edonolako material inprimatuetan, bai zuzeneko edozein komunikazio-ekintzatan. Horretarako, Arte Garaikideko Uharte Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak agertu beharko du, proiektutik eratortzen den argitalpen orotan. Uharte Zentroak logotipoa ongi jarri ote den baieztatu beharko du.

H. ORDAINKETA, ETA HURAXE FROGATZEKO MODUA

ORDAINKETA-PROZEDURA

Laguntzen ordainketa hiru tartetan egingen da:

1. Laguntza onartu ondoren, proiektuaren aurrekontuaren % 50 aurreratuko da.
2. 2022ko irailaren 8rako, onuradunek ordura arte egin dituzten gastuak justifikatu beharko dituzte. Justifikazio horren ondotik, gehienez ere % 25 gehiago ordainduko zaie.
3. Onuradunek proiektuaren memoria aurkezteko 2022ko azaroaren 30a arte izango dute. Laguntzaren azken tarte 2022ko abenduan egingo da bukaerako memoria aurkeztu denean ordainduko da.

JUSTIFIKATZEKO MODUA

Onuradunak behartuta daude jasotako laguntzaren kontura egindako gastuak justifikatzera, bai eta laguntzaren helburuak bete direla egiaztatzerako ere, adostutako epeetan (ikus **ORDAINKETA PROZEDURA**) eta honako agiri hauen bidez:

- Egindako jardueraren txosten teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne. Txostenean, proiektuaren alderdi guztiak bete direla eta deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat datorrela jaso beharko da.

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, gastuen zerrenda barne, onuradunei emanen zaien Excel ereduan oinarrituta. Faktura bakoitzean enpresa, eguna, zenbatekoa eta zenbakia adierazi beharko dira.

- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.

Gastuak fakturen bidez edo administrazio-eraginkortasuna duten bestelako frogagiri bidez justifikatuko dira. Fakturak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.

- Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana.

50 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez egingen dira. Eskudiruz ordaindutako 50 € baino gutxiagoko ordainketek hornitzaileek

luzatutako faktura beharko dute, “ordaindua” zigiluarekin...

Ordainagiriak ezarritako data baino lehen aurkezten ez badira, ez dira ordainduko. Era berean, aurreratutako diru laguntza ez bada justifikatzen, bueltatua izan beharko da.

3. Argitalpenerako diru-laguntzak

A. ZENBATEKOA

25.000 euro ezarri dira gutxienez 3 argitalpen-proiektu laguntzeko; gehienez 8.300 euro proiektuko.

Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako zenbat eskatzen den, horrenbestekoa izanen da laguntza.

Onuradunen batek uko egiten badio laguntzari, puntuazioaren hurrenkeran hurrengoa den eskatzaileari emanen zaio, betiere, deialdian eskatutako gutxienekoa gainditzen badu.

Laguntza jasotzen ahal duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura bere proiektua doitzea. Hori dela-eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua ekoizpeneko modalitatara bideratutako diruari erantzen ahalko zaio.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera eman beharreko laguntzen baturak gainditzen badu deialdian ezarritako zenbatekoa, artisten artean hainbanatu ahal izango da, eta zenbatekoa puntuazioaren proportzioan murriztuko da.

B. FINANTZATZEN AHAL DIREN GASTUAK

Finantzatu daitezkeen gastuak dira argitalpenarekin eta edizioarekin lotura zuzena dutenak, eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak. Aipatu gastuen kostua ez da inola ere izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Diseinu grafikoaren kostuak, materiala landu eta prestatzeko kostuak.
- Egileen ordainsariak (kolaboratzaileak, argazkia, testuak...).
- Itzulpenak.
- ISBN.
- Edizioa-inprimaketa.
- Hedapena.

Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emanen:

- Jarduera kudeatzeari eta koordinatzeari lotutako gastuak, lana ekoizteko kostuak eta artistaren ordainsariak, eta era berean, bidalketa gastuak, hedapen eta komunikazio gastuak, dieta-gastuak, joan-etorrikoak eta beste gastu arrunt batzuk.
- Proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu

Onartutako aurrekontua artistak aurkeztutako aurrekontuaren emaitza izango da, diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kenduta.

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2022ko martxoaren 17ko, 23:59an itxiko da.

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2020 martxoaren 26an itxiko da.

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Izena emateko fitxa behar bezala bete.
- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2021eko urtarriaren 1a baino lehen errolatua egotearen ziurtagiria.
- Aurrekontu xehatua eta zehatza, emandako eredia jarraituz.
- Argitalpenaren behin-behineko maketazioa.
- Proiektua azaltzeko txosten bakarra PDFan, honakoa barne-bilduz:
 1. Proiektuaren sinopsia edo laburpena (gehienez 500 karaktere)
 2. Proposamena (gehienez 2000 karaktere)
 3. Kolaboratzaileen zerrenda, baldin bada: testuak, diseinua...
 4. Kronograma edo lan-plana (gehienez orrialde bat)
 5. Banaketa- edo hedapen-plana, proposatutako ale-kopurua, publikoarentzako salmenta-prezioa eta argitaletxea adierazita (autoedizioa ez bada)
- Curriculum PDF bakarrean, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin. Kolektiboen kasuan kide guztien curriculum aurkeztuko da. (gehienez 2 orrialde)
- Aldez aurretik egindako lanen txostena (gehienez 8 orrialde)

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, deskargatu daitezkeen ereduak erabiliz, beti ere formatu berean badaude.

Bideoak, web helbide bidez aurkeztu ahal izango dira, dagokion dokumentuan.

Artxiboak honela izendatuta agertu beharko dute: **IZENA_ABIZENAK_EKOIZPEN_LAGUNTZAK_aurrekontua.PDF** (edo dena delakoa, izen-ematea, memoria, NANA) artxiboa ayudas@centrohuarte.es helbidera bidali beharko da.

Bide beretik, artxiboa jaso izanaren ziurtagiria igorriko da.

D. AUKERAKETA

EBALUAZIO BATZORDEA

Hona ebaluazio batzordeko kideak:

- Celia Martín Larumbe, Museoen saileko arduraduna Kultura Zuzendaritza nagusiaren ordezkaritzan
- Juan Zapater, Bilbaoarteko zuzendaria
- Oier Etxeberria, Tabakalerako Arte Garaikideko arlo-burua
- Greta Alfaro, artista plastikoa eta Uharteko Zentroko Patronatuko kidea
- Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez

BALORAZIO-PROZEDURA

1. Uharte Zentroak eskaeraren lehen berrikuspen teknikoa egingen du guztiek deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.

2. Ebaluazio Batzordeko kideek onartutako proiektuak jaso eta baloratuko dituzte bakoitzak bere aldetik eta bakoitzak, 10 hautagaiez osaturiko zerrenda bat proposatuko du.

3. Ebaluazio Batzordea aurrez hautatutako hautagaien puntuazioak bateratzeko bilduko da. Hautagaiek 5 minutuko iraupena izango dute ahozko aurkezpena egin ahal izateko. Ondoren, Batzordeak azken puntuazio-proposamena aurkeztuko du.

Onartutako aurrekontuak ezarririk eta proiektu guztien bideragarritasuna ziurtatuta, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio altuena izan duten proiektuen artean. Erabakia loteslea izango da.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak:

1. Argitalpenaren interesa eta koherentzia (65 puntu).

Argitalpenaren garapena. Egitura, diseinua, koherentzia edukiaren eta proposatutako kolaborazioen artean (40 puntu).

Proiektuaren garrantzia, interes maila, eta lagungarriak izatea arte-sorkuntzaren esparrua eta eskatzailearen ibilbidea berritzeko (15 puntu).

Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).

2. Artistak deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbidea (20 puntu).

3. Banaketa-plana eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).

4. Euskarak proiektuan tokia izatea (5 puntu). Irizpide hau ez da aplikatuko, ezein hizkuntzarik aurreikusten ez duten proiektuen balorazioan; horietarako, atal honetan aurreikusitako ehunekoa 1. atalaren 1.puntuaren ehunekolari erantsiko zaio.

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta

ez dira aintzat hartuko gutxienez 50 puntura iristen ez diren proiektuak. “Argitalpenaren interesa eta koherentzia” ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ere ez dira onartuko.

E. KOMUNIKAZIOA

Onuradunen aukeraketa interesdunei jakinaraziko zaie eta Uharte Zentroaren webgunean argitaratuko da.

F. PROIEKTUEN JARRAIPENA EGITEA


Uharte Zentroak, ahal duen neurrian, proiektuen eta artisten jarraipena egingen du: jarraipena ezberdina izanen da proposamenen arabera, baina aholkularitza, laguntza teknikoa, kontaktuak edo beste edozein moldetako izaten ahalko dira, betiere Uharte Zentroaren eskura badago

G. ARGITALPENEN AURKEZPENA

2023an argitalpen guztiak batera aurkeztuko dira, Uharte Zentroaren Aperitifak programazioaren baitan. Artistekin ados jarri ondoren, Uharte Zentroa lankidetzan aritzen ahalko da argitalpena beste leku batzuetan aurkezteko.

H. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Deialdi honetan diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea laguntza
- Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren aurrean proiektua gauzatu dela justifikatzea, eta emandako laguntzaren kontura egindako gastuak ere bai. Proiektua amaitutzat emateko, argitaratuta egon behar du.
- Proiektua deialdian aurkeztutakoarekin bat gauzatzea. Aldaketak egin ahalko dira, baldin eta aldaketa nabarmenik eragiten ez badute, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez badiote.
- Argitalpena 2023an aurkeztea Uharte Zentroan gainerako argitalpen onuradunekin batera, Zentroak eskatutako egunetan eta baldintzetan.
- Argitalpena, Arte Garaikideko Uharte Zentroak, Nafarroako Gobernuako Kultura Zuzendaritza Nagusiko sailarekin elkarlanean ateratako Arte Plastiko eta Ikusikoetarako diru-laguntza programaren bidez finantzatua izan dela adierazi beharko da argitalpenaren ageriko leku batean. Horretarako, Arte Garaikideko Uharte Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak agertu beharko dira. Uharte Zentroak logotipoak ongi jarri ote diren egiaztatu beharko du.
- Laguntzaren xede den argitalpena finantzatzen duten beste diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Uharteko Arte Garaikide Zentroari.
- Uharteko Arte Garaikide Zentroari uneoro ematea argitalpenaren garapena egiaztatzeko aukera.
- Gutxienez 20 argitalpen-ale ematea Uharte Zentroari, argitalpena inprimatua bada.
- Azken txostena aurkeztea, proiektuaren gauzapenaren justifikazioa bilduta.



|| \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ = / || \ || \ || \